

**SEKULARIZAZIOAREN ERAGINA  
EUSKALDUN GIZARTEAN:  
POESIAREN ADIBIDE BAT**

**Euskal Herriko fedean sekularizazioak aspaldian euki duen garrantzi itzela: euskaldun fededun eredia apurtu delarik**

Euskal Herria oso herri erlijioso baten moduan izan da ikusia: erlijio bokazio asko, praktika erlijiosoan etab. Hortik dator kigu adibidez “euskaldun fededun” esatera, herriaren izatea fedeagaz, kristau fedearekin bat eginik. Ezinezkoa zen euskaldun jator izan fede zintzokoa izan barik. Eta hori baino gehiago ere, euskalduna fededun zintzo eta kristau eredu bezela aurkezten zen.

Tradizio honen adibide ugari dago euskal herrian eta euskal literaturan. Txomin Agirre nobelagile ondarrutarren nobelak eta Joanes artzaia, adibidez, Arantzazutik hurbil, Urbian lan egiten zuen artzain eta gizon, fededun eta kristau eredia.

Beste adibide bat Lauaxetaren olerkian dugu. Gasteizko presoaldian, fusilaketa egunaren bezperan, fede aitormen argi ta garbia egiten du bere poema-otoitzetan, Euskal Herria kinka larrian ikusita ere, Kristorenganako fedearekin bat eginik ikusten du bere etorkizuna.

“Euzkadi ona, zagoz betiko  
Kristoren fede betean;

Olan zoruna billauko dozu  
Emen ezpada zeruan.  
“Eriotz deia aurrean daukot  
ziñiztu bada euzkoa:  
Euzkadi azke izan daitean  
Zaindu Josuren legea.”

(LAUAXETA: Olerkiak, 318 or.)

Hala ere, holan izan bada ere, zerbait puskatu da ekuazio horretan, eta gaur egun euskaldun fededun hori gaixorik dagoela esan dezakegu. Puskaturik edo gaixorik.

Gaspar Martinezek adibidez, datu zehatzak ematen dizkigu Europa osoan, eta Euskal Herrian bertan, gertatu den sekularizazio prozesu honi buruz:

- bokazio urriak abade eta erlijioso bizitzarako.
- praktika erlijioso eta sakramentuen bizitzan krisia sakona.
- fedearen transmisio eta gizarteratzean izandako krisia.

Lehen euskalduna fede bakar batekin identifikatzen bazen, orain pluralismo osoa dago, eta euren artean indiferentzia eta ateismoa barne. (Vida Nueva aldizkaria, 2002-04-27, 26-27 or.)

Normala denez, sekularizazio prozesu honek bere eragina izan du euskal literaturan. Txillardegi izan baldin bazen ildo berri hauen aintzandari bat, ez da benetan bakarra. Jainkoa, erlijioa, Eliza... desagertzen joango dira gure literaturaren orrietatik, batzuetan estilo crasotzaile batekin, indiferentziaz gehienetan. Inoiz zaratatsu eta eskandaluarekin, isil isilik gehienetan.

Aldizkari mailan sorrera erlijiosoa izan zuten euskarazko aldizkariak, gaur egun desagerturik edota jabe aldaketa izan duten gehienek, horrekin helburua eta edukiak zeharo aldatuz.

Adibide bat ipintzearren, kaputxinoek sortu eta mantendutako “Zeruko Argia” klasikoa, gaur egun bataio berriarekin izena irabazi beharrean, galdu egin du, “Argia” geratu zaiola izen bakar legez, beste profesional gazte batzuen esku.

## **Azaltzerakoan teoria ezberdinak: beranduago etorri baina etorri dela; askapen mugimenduaren sustituzio erlijioa; ez dela ezer jaso eta berdin gaudela...**

Krisi honen arrazoiak eta nondik norakoak azaltzeko unean, ez datoz denak bat, egia esan. "Euskaldun fededun" tipikoaren gaixotzea dela eta, segun eta zein ideologia euki azaltzen duenak, edota fedearen zein esperientzia bizi, oso azalpen ezberdinak aurkituko ditugu, bai gaixoaren sintomatologian, bai zergatian, eta hoba ez, gaixoaren osatzerako prozesuan eta bideetan.

Zehaztasun gehiago beharko luke tipologia honek, baina hala ere, hona hemen gaur egun ematen diren azalpen batzuk:

-Ez da ezer gertatu edota gaixoa ez da hain larria. Badira aintzinakoa baino hoberik inoiz ez dela egon eta haren nostalgian bizi direnak. Batzuk sekularizazioak eragindako larrialdiari begiratu ere ez, eta lehengokoa, "hura bai hura" izango dute jokabide, tarteka salaketa gogorrak jarririk prozesu honi buruz, pekatutik ez urruti, hain zuzen ere.

Fedearen ikuspegi tradizionalistagatik, edota Euskal Herria apartekoa eta berezia dela sinisturik, euren munduan aterpetuta biziko dira, Europa osoko fedea astindu duen fenomeno honi aurre egin gabe, eta egiterakotan, salaketa eta pekatua aipatuz.

-Badira hau Euskal Herrira eta euskaldun herrietara beranduago etorri baina etorri egin dela onartzen dutenak. Egoera honek sortzen duen ezinegonaren aurrean, aurrerago beste herriek bizi izan duena hartuko dute ikasbide bezala, larrialdiari, gaixoari berea aitortu baina traumapean erori gabe.

Maila ezberdinak izango dira hemen, norberaren ideologia eta fede ikuspegiaren arabera. Era berean sekularizazioa ez da deabruaren seme bezala ikusten, eta berarekin elkarrizketa bat eman gurean ari da, zintzotasun maila ezberdinakin, fede indarberritzeko akuilu bezala onartuaz.

Batzuk, sekularizazioan teologikoki "garaien ezaugarri" edo "signo de los tiempos" kategoria erabiliko dute, berarekin el-

karrizketa proposatuz. Horrela bere jokoan akritikoki erori gabe, baina Vatikanoko II. Kontzilioaren ildotik jarraituz:

“Elizak sakontasunez ikertu behar ditu garaiko ezaugarriak eta ebanjelioaren argipean azaldu, horrela belaunaldi bakoitzari egokituz gizadiaren galdera betikoei erantzun ahal izateko, gaurko eta biharko bizitzaren zentzunaz eta bien arteko harremanaz” (Gaudium et spes 4).

-idatzi dira beste azalpen batzuk ere, Izaskun Sacnz de la Fuenterena bezala, euskal herrietan, sektore abertzale erradikaletan beste irakurketa bat ikusi eta agertuaraziz: sustituziozko erlijio bat, formak, erritualak etab. egokituz baina edukia guztiz aldatuz, “nazio askapen mugimendua” edo “mundu erradikal” horretan.

Gaur egungo teologia euskaraz emateko sortu den ahalegin serio eta sakonena, Deustuko Unibertsitateak argitaratzen duen “Erljio Kulturaren Bilduma” izenekoan, Jose Arregi frantziskotarrak bere “Nazareteko Jesus” liburuaren eskaintza honela cgiten du:

*Fededun zalantzatiei,  
Fedegabe egartiei” (7 or)*

Hitz gutxitan zailago litzateke hau guztia azaltzea, non eta teologiazko euskal liburu batean: Fededun zalantzadunak, bukatu ziren zalantza gabeko euskaldun jator haiek, edota zantzarik ez badute, zertan ikasi. Era berean fedegabe baina egarri diren euskaldunci eskeintzen zaie lan hau, zintzotasunaz biziaren iturri eta arrazoi bila ari diren fedegabeko euskaldun hoiei.

**Guk hau guzti hau zehaztu gura genuke euskal literaturaren adibide batekin: frantziskotar eta abade Bitoriano Gandiagaren poema lan bi konparaturik**

Teologia aldetik euskeraz oso gutxi landu izan da gai hau. Hona hemen adibide bat bezala, Anjel Lertxundi euskal idazle eta literatura kritikoak oraintsu idatzi zuena:



“Garai bateko euskal literaturak Jaungoikoa zuen pertsonaia nagusi (...) Lizardiren eta Lauxetaren gai maiteena eta joriena Jainkoa iturri zuen poesia eta poetika bera zen (...) Ondoren, sekularizazio bertigozko bat gertatu zen. Dena kutsatzen zuen dogmatismo erlijiosoak dena kutsatzen duen dogmatismo politikoari utzi zion lekua eta lekuko (...) Zoritxarrez, ordea, sekularizazio horri buruzko hausnarketa gutxi dugu. Inork esango luke lotsatu egiten gaituela izan ginenak. Baina ez gaitu garenak (gure gaurko dogmatismoak) lotsatzen” in El Correo Español, 2.002-04-17 alean argitaratua.

Argi dutenek ez dute elkarrizketa beharrik, egia absolutuaren jabe ikusten baitute haien burua.

Fedea galdu eta harro daudenak, ez dute zertan arduratu behar gai hauek, eurek ere here absolutuan ziur ikusten dute euren burua eta.

Hala ere badira euskaldun fededunak zalantzaz beteriko bide hau jorratu dutenak:

Euskal Herri fededun, oso fededun eta erlijio gaietan lasai bizi izan den herritik, sekularizazioak jotako herrira eta fede artegatsu batera pausua eman dutenak.

Lantxo honen luzaerak agindurik, gaur egungo euskal poeta baten poemak aztertuko ditugu, haiengan euskal munduan gertatu den prozesua islatzen den ikusteko, eta erronka horri nola erantzun dion argitzeko.

Bitoriano Gandiaga, abade, frantsizkotar eta poeta. Eta poeta gorena, ona, oso ona, apartekoa, Juan Mari Lekuonak esan zuen bezala.

Asko landu izan da Gandiagaren poesia literatur balioak kontuan izanik. Asko kantatu dira here poemak, elizetan eta plazan: Gontzal Mendibil, Urko, Gorka Knör, Josu eta Jokin, Oskarbi, Antton Valverde.

Hala ere teologia aldetik, fedearen ikuspegia, Eliz eredia, abadetzaren eta ministerioaren bere ikuspegi poetikoaz, zaila da lan sakonik topatzea. Bere poesia sozialaz asko aurkitu dezakegu. Bere poesia sozialaren iturri biblikoak aztertzeko eta sakontzeko daude oraindik.

Bere poema liburu bi aukeratu ditugu lantxo honetarako: *Elorri*, 1.962.ean argitara emana, eta *Hiru gizon bakarka*, 1.974.ean lehen edizioa, 1.991.ean bigarrena (guk bigarren hau erabiliko dugu gure oharrak egiteko).

Garai lasaietatik garai trumoitsuetarako pausoa ematen da tarte honetan bai Euskal Herrian bai euskal herrietako fedean. Lan bi hauen konparaketan naturatik herrira, edota poesia intimistatik poesia sozialerako jauzia ikusi eta aztertua izan da. Baina liburu bi hauen artean, baita ere konparatu dezakegu Jainkoaren irudia, Eliz eredia, fedea eta herriarteko harremana etab. luze bat. Estudio sakonagorik beharko litzateke, gizarteak eta fedeak jasotako aldaketa hori lan horretan nola ageri den aztertzeko. Eta era berean, sekularizazioak jo bai baina hil ez duen herri honen fedea dela eta, ea nolako erantzuna aurkitu duen poetak eta azaltzera nola ematen digun.

### **Egin dezakegu berba sekularizazioaz abade-poeta baten kasuan?**

Aurrera jarraitu orduko azken zalantza hau argitu gura nuke. Aztertuko dugun poeta apaiz eta fraile prantziskotarra izanik, ba al du zentzunik sekularizazioaz hitz egitea kasu honetan? Baiezkotan nago, eta asko gainera.

Sekularizazioak fedea jo badu, bere praktika, teologia eta ereduetan jo du. Jo ditu haurrak, gazteak, edadekoak eta zaharrak. Jo ditu laikoak, erlijiosoak eta apaizak. Jo du teologia eta ministerioa.

Gizartean bertan gertatu diren zalantzak, apaizen barnean gertatu dira, dudarik gabe, eta oso interesgarria deritzot apaiz poeta honek eman duen erantzuna.



Egia da hizkuntza teologikoa beste bat izan dela gehiengotan: prosazko saiakera. Baina ezin diogu zilegitasuna kendu poesiaren indarrari eta fede egia agertzeko moduari. Biblia berak ere, baliabide poetikoa sarri erabilten du gizaki eta gizarte barnean dauden egiak azaltzeko, ospatzeko, transmititzeko...

Bada apaizik, tradizioaren aterpean geratu denik. Beragan, bere obran, bere teologia eta praktikan "Oi aintzinako Euskal Fede hura", sendoa eta argia geratzen da, gaurko gizartearen jokabideei itxita zeharo.

Bada apaizik, eta asko gainera, bere fedea eta eliz atxikimendua galdu dutenak. Arrazoi ezberdinak daude, baina askok itxi zuten apaizgoa azken garaian euskal munduan. Batzuk fedean tinko darraite, elizaren zerbitzurako prest. Baina kasu honetan fedea eta elizarekiko jarrera ezabatu dutenak aipatu gura ditugu. Batzuk isilean aldendu dira. Beste batzuk itzelak esan eta zarata eta protesta artean. Azken hauek Elizaren epelkeriagatik edota sekularizazioaren golpe gogorretatik, elkartetik joanak dira.

Bada apaizik, formak eta azala gaurko garaietara egokitu duenak, nahiz eta barne barnean oraindik beste ereduak gogokoago izan. Laikuen partehartzea elizan, emakumearen papeara, euskal herriarekiko jokabidea, pobreenganako aukera etab. ahoz eta gogoz onartu dituzte, baina sakon sakonetik onartu beharrean, konklusio guztiak atara barik...

Eta bada apaizik elkarrizketa serio baten ondoren, bere fedea biziberritu duenak, azala eta barru, fedearen betiko baloreak gaurko euskal gizarte sekulartu honetan atxikituz.

Vaticano II. Kontzilioaren eragina gure elizara beranduago heldu zen, sekularizazioa bezela, hain zuzen ere. Baina eman ditu elkarrizketako eta eliz berritzeko fruitu apartekoak eta ederrak. Honen adibide litzateke Bitoriano Gandiagaren poesiaren bilakaera.

## Biografia apur bat

Bitoriano Gandiaga Bizkaiko Mendata herrian jaio zen, Orbelaun baserrian 1928ko urriaren 8an. Eskola ikasketa apurrak Arratzuko eskolan egin zituen.

Haurtzaroko oroitzapenen artean Gernikaren bonbardaketa eta haren eragina familian dago. Geroxeago bertsoetan eman zuen:

“gerrako garrek ez zuten erre  
Gernika kixkarratuan” (HGB 74 or)

Hamabi urterekin Arantzazura joan zen, kostata ere, lehen ikasketak egitera. Erlijioso ikasketak Foru, Zarautz eta Oliten egin zituen, 1.954.ean apaiztu arte. Handik aurrera Arantzazun jarraitu zuen irakasle ikastetxean eta apaiz lanetan. “Bistan nuen baita, predikuan gauzak argi eta zehatz eta ulerterraz eman nahi banituen, asko irakurri behar nuela. Jaungoikoaren hitza lasai eta sakon ausnartu behar nuela, eta abar. Eta ni ezin nintzen iritsi beharrak ezezik barruak eskatzen zidan hura betetzera eta estuaren estuz lehetzen hasi nintzen, garrazten, larria baino angustia zen itomenean bizitzen” (BGeM 76 or.).

Honek guzti honek gaixotasuna ekarri zion, 1981eko Erramu Igandean bihotzekoak jo zuen eta. Handik dator bere depresioa, Santa Agedako psikiatrikoko medikuarekin egotea eta *Denbora galdu alde* lana.

Bihotzekoa eta denak gainditu ostean, oraindik sasoiko gizona eta sendoa, minbizia etorri zitzaion eta 2001. urteko Otsailaren 21an hil zen, minbiziak jota arreba heriotzarekin bateginik.

Gandiaga pertsona apala, umila eta sentibera zela diote ezagutu zutenek, baita zakarra eta insegurua ere, batez ere eskolak ematen zituenean, baina aldi berean izugarri maitagarria. Hona bere hileta elizkizunean, aurretiaz grabaturik, bere abotsean entzundako poemak:



Sinisten dut bizitza  
Hari zor natzaio,  
Hari eskerrak naiz;  
Arretaz dut zainduko,  
Ospatuko dut maiz.

Sinisten dut bizitza  
Betirako dohain  
Alai ta galanta;  
Badut zertan gozatu,  
Bai-eta zer kanta.

(Sebas Garciarengandik jaso, mintegi apunteak)

### **Idazlan nagusiak**

Hainbat idazlan eta poema ditu hor hemen. Hala ere, lan-  
txo honetarako hiru lau hitz baino ez bere lan nagusiak ai-  
patuz.

1.- *Elorri*, EFA, Oñati, 1962. Juan Mari Lekuonarentzat hau-  
xe da bere lanik onena.

“Mendatako olerkariaren libururik onena omen. Neronek  
ere halaxe pentsatzen dut, batez ere Bitorianori entzun ondo-  
ren Elorri zela bere poemategirik hobereena, agian.” (BGeM  
93 or.).

Abadetze inguruko urteetan idatzia, Elorria da biziitzen sin-  
boloa. Gaiak: natura, Arantzazu, fedea, abadetza, etab.

“Eta aipagarria dena, bertsokeran esaten digu, es duela me-  
trika berezirik erabiltzen, baizik eta trikitiak, koplak eta herri  
neurkerak darabilzkela gehienetan (...). Hantuste eta harroke-  
riarik gabeko testua dugu, Mendatako gerraurreko eta gudaos-  
teko giroa ispilatzen duena: apala, bizia, aukeratua, egiatia.  
Ideologiatik baino gehiago bizikizunetik duena” (Juan Mari  
Lekuona, BGeM 93 or).

Eta fedea bere herrian ia ia lasai bizi dena, gehituko nuke nik, aurrerago ikusiko dugun Txillardegiri egindako erantzunaz aparte.

2.- *Hiru Gizon Bakarka*, Gero, Bilbo, 1974.

Elorrik kritika onak eta zabalkunde eskasa izan bazuen, Hiru Gizon Bakarkak arrakasta handia izan zuen: urte baten agortua, hainbat eta hainbat kantarik aukeratua, plazarik plaza eta kantaldiz kantaldi zabaldua...

Hona hemen Juan Mari Lekuonaren iritziak, nireak baino askoz argiagoak:

“Bihotzean aurkitu zuen Orbelaungo adibidea, eta ez bakarrik klase sozialaren kontzientzia, baizik eta erlijio bizikizunaren formulazio berriagoa, gihartsuagoa” BGeM 95. or.

“Hiru Gizon Bakarkan bi poemategi bereiziko nituzke: “Artasoko salmuak” eta “Korupekoak”, nortasun berria dakarten poemategiak, batez ere sentimendu erlijiozkoen tratamenduan. Bereziki lurraren bizikizunak, Jainkoari zuzendutako herbaldiak, esaldi gogor eta egitiak, eta jarrera bete-beteak, fedearen eskakizun gogorrak” BGeM 95. or.

“Espero dut oraindik euskaraz mintzatzen den kristau herriak eskueran izango dituela, eta erabili, Bitorianoren kantuletrak, eliztarren sentimentu erlijiozkoak formulatzeko eta aho gozatzeko” BGeM 97. or.

Liburu nagusi bi hauen artean, literatur ikuspegitik, sarri aipatu izan da Gandiagak poesia soziala aurkitu zuela, eta horrela bigarren lan honek horretarako joera duela.

Ezin dugu ahaztu, oster, European eta Euskal Herrian urteotan emandako sekularizazio prozesu gogorra. Normala denez, Arantzazuko prailea herrira joakeran bere apaiz lanetan, nabari izan zuela fenomeno horren eragina, eta ez literaturan bakarrik.

Eta azken datu bat, liburu bi horien artean, Eliza Katolikuak bere Vaticano II. Kontzilioa ospatzen du (1962-1965 urteotan),

Elizari bere barne hausnarketa eta herrikuntzarako suposatu zion indar guztiarekin. Apaiz berri honengan, zer esanik ere ez, eragina izan behar du Elizaren Kontzilio honek.

3.- *Uda batez Madrilen*, Jakin, Oñate, 1977.

Juan Mari Lekuonaren berbak hartuko ditugu berriz ere, laborbur liburu hau aurkezterakoan.

“Madrila teologia estudiatzera hurbildu zen. Baina hiritzarrak utzitako zirrarakoa bere egin nahirik, eta poema-liburu bat gaiari eskaini, honela hasi zitzaigun bere bizikizunak aurkezten, berak egiten zuen eran, bere sail berria egunero onduz”.

“Liburu honekin trilogia bat osatzen du Bitoriano Gandiagak. Lehengo biek goieneko iritzia jaso zuten kritikaren aldetik, eta euskal kantarien aldetik. Hirugarrenak, bai tematikaz, bai espresakeraz, bide berriagoak adierazten dizkigu poesia soziala eraikitzeko, plastizitatez, hotsez eta berreraikuntzez betetako espresakera” BgeM 95. or.

4.- *Denbora galdu alde*, Ercin, Donostia, 1985.

Bere gaixoaldian medikuak aholkatutako hitzak dira “denbora galtzen” ikasi behar zuela. Asti horretaz baliatuz, bere gauzak idazten ditu, prosaz zein bertsoz, bere barrua orriotara irauliz.

5.- *Gabon dut anuntzio*, EFA, Oñate, 1986.

Gabon giroko zorion eta kantakin egindako poema sorta. Frantziskotarren tradizioari bete betean jarraituz. Oso ezaguna egin den lana Gontzal Mendibil artistaren lankidetzarekin sortutako telebista saioa eta diskoak direla eta. Gabon kontsumista eta inozoen aurrean, ebangelioan sustraitutako gabon bete beteak dakarkiguz.

6.- *Abotsa behartu gabe*, Erein, Donostia, 1997.

Aspaldiko poemak, hor eta hemen bananduta zeudenak, eta poema argitaratubako batzuk, hemen batu egiten ditu.



Gainera CD bat zekarren liburuak, Gandiagak deklamatzeko zituena bere poemekin osatua, antologia txiki bat suposatzen duela aukera honek.

### **Elorriko gai erlijioso batzuen azterketa**

Literatura ikuspegiko azterketa asko eta sakonak egin dira. Azter ditzagun Elorriko poemok erlijio gaiak azpimarratuz.

1.- Erlijioa bere munduan lasai bizi da. Poema asko erlijio-soak dira bete-betean, baina besteetan ere Arantzazuko komentuko praileen bizimodua sarri agertuko zaigu.

Bertako tonua, fedean lasai bizi den gizonaren zoriona dago, mundutik aparte munduaren alde, Jainkoarengandik hurbi-lago...

*Beatus ille* ospetsuaren arrastoa nabaria da. Adibide bezala 153. orrietako *Atsekabea eta Pozik* poemak. Komentua kabiarekin konparatuko du poetak Ementxe dago, 218 or., edota Txoritxu izeneko poeman 76 or.

Bertako bakea gorai patuko du Koruko gerizpe poeman, 174-175 or.

Parra-parra agertzen zaizkigu bertan: praileak (61, 81, 83, 212) batzuetan paisajeko figura bezala, besteetan protagonista bezala; berdin pasatzen zaigu komentuan, klaustroan edo bertako baratzarekin, batzuetan eszenatoki, inoiz gaia (68, 76, 77, 78, 79, 96, 174, 178, 212 eta 218); sarri entzungo ditugu bere kanpaiak (62, 68) edo bere intzentsua usainduko dugu (77).

Zoriontsua al da prailea bizimodu honetan? Dudarik gabe. Honalexe dinosku bere poema honetan:

“Zoriontsu nazan, itaundu deustazu,  
Arantzazu-ko neure komentu onetan?  
Ez al dakizu, zein ota-txori nazan?...  
Zoriontsu naz, bai, guztiz zoriontsu.” (151)

Baita ere 155.can Bizitza poeman.  
Hala ere, ez da zoriontsaun inozo edo lelo bat.

“Ez uste prailleetan  
lore xamurretan  
biziko zareanik” (81-83).

2.- Munduari buruzko hona bere ikuspegia:

Mundu au askok eder  
Ikusi daroe.  
Ai! Baiña askok ikusi  
Ainbat eder ete? (195).

Mundu hau ederra zaio poetari Gauza ederrok poema luzean ageri zaigunez (91-95), baina horrek ez dio kentzen munduaren pekatua eta txarra aitortzea (Guzurra, 86, Betiko 87, Bibliako Jakiturien aidea duen poema hain zuzen ere), zeruan dagoela benetako aberri bakarra: “goian dago portua atsedenta aberri” (56).

3.- Euskal Herriaz oso aipamen gitxi izango ditugu liburu osoan. Kuriosoa benetan Euskal Arkadiaren ikuspegia:

Euskal-Arkadi jagi,  
Bakearen larrain (64).

Beste aipamen txiki batzuk eta akabo, oso ezberdina gero etorriko den liburuaren aldean.

4.- Justizia eta pobreen aipamen zuzen eta argirik ere ez dugu aurkituko.

5.- Ama Birjinari hainbat poema eskeintzen dio poetak, eta ederrak benetan asko (53-58, 121-144). Hala ere guztietan oso irudi idealizatua, goraltua, intimista. Kuriosoa adibidez Elorriko Andra Mari poeman (57-58).

“ermitatxu bat gura zendun ta  
guk eliza bat eraiki”.

Dana dala, oso irudi ezberdina geroago ikusiko dugun Nekaldietako Amaren ondoan, basilika berriaren atarian Oteitzak irudikatua, edo urte batzuk beranduago Gabon dut anuntzion liburuko 86. orrialdean irakurriko dugun ama pobrearekin:

“haurtxo bat jaio da,  
bere etxetik kanpora,  
ama pobre batengandik  
eta aitak ez du lanik”.

#### 6.- Eliza Ama.

Eliza kabi izango da, zaintzen gaituan Ama, edota defendatzen gaituan arkaitza (55). Bere lasaitasunean, bere altzoan aurkitu du zoriona gizonak, eta bertara joateko deia egiten digu, mundua ez bait da hain ona. Vaticano II. Kontzilio aurreko eredia garbia, euskalduna fededuna zen sasoikoa gehien bat.

7.- Abadetza. Apaizgo garaian eginda daude poema eder asko (108-115). Ministerioaren ikuspegia, hala ere, herrian bizi ez arren, herrira doan apaizarena da.

Herri-gizonen taldetik urrundu da apaiz izateko, apartekotasunean bizi da:

Onuntz ekarri nauan  
Batela nun dago?  
Oraindik orain, atzo,  
Beste ertzean nengoan,  
Erri-gizonezko” (112).

Abadetzak Jaunaren ordezkotza egin du (112), Jaungoiko eta gizonen artean zintzilik dago (113).

Kontuan hartzeko dira baita ere bokazioaren beste poema bi, 103 eta 106 orrialdeetan, eta Urrundik naiatortzu (103) poemak daukan salmuaren aidea. “Abitu latz uxati” ez da izango kontzilio ostean itxiko den erropazko ohitura, estiko eta eredu baten adierazgarri baino.



Bere esku bedeinkatu eta santuek oraindik ez dira plazara joan profetaren eginbeharra betetzera:

“neure apaiztasun au,  
zoroki eta derrior  
laztandu bearrez,  
eskuoi musu aundi  
bana emon deutset” (114).

Apaizgoa mezari lotuta oraindino:

Mezako azkenez!,  
Gurari guztiak lortuta. (115).

8.- Jainko gose.

Ugari eta ederrak Jainkoarekin berbetan egindako poemak. “Zu etzara zeu nigaz, ni ez naz neu zugaz” (59) oihartzun paulinoa duen jokabidea; arreba euriaren aipamen frantziskotarra (68), Nun-nai (75) poemaren Kantarik Ederrenaren iturria; 138 salmua gogoratzen digun Zu Jauna poema (86); aurrerago era aipatu dugun, eta Jakituriazko liburua gogoratzen digun Betiko (87);

“Gogoak gauza bat esan,  
bearrak beste gauza bat.  
Soin eta arima-naien artean

Naiko burruka ba-daukat” (90), guztiz paulinoa; Jaungoikobilla (95) jendea barrezka dauka, salmistak izan zuen bezela; Golgota eta gurutzea (99), Joan ebangelistaren Artzai Ona eta bildotsa (99, 97, 213); “Magnificat” Lukasen ebangelioaren aipamena poema luze sarituan (136); Kantari jaso (153) naturaren ikuspegi optimista eta frantziskotarra; Jainkoaren gelditasuna (165); biztueraren sinismena eta indarra (168, 171); “Neuk be neugandik nasai bizi gura neuke” Erromatarrei eginiko Pauloren epistola gogoratuaz; Beti begi (180) poema ezin ederragoa...

Horra hor poematan zehar aurkitu ditugun bibliako edo frantziskotarren aipamen argi batzuk: Jainko gose da poeta, eta

gure egarri asetzeko bertso fededun hoiek opari gisa eskeintzen dizkigu.

9.- Txillardegiri erantzuna.

Hala ere bada mundu lasai haretan etorriko denaren seinale bat. Oraindik bat baino ez, Txillardegi jaunaren lana, eta hari zuzen zuzenan eskeintzen dio "Gizon begi-goritu" poema luzea (157-160).

Poetak itaun berberak ditu "Gizon, zeuk legez daukat arima gartsu bat", hala ere erantzuna ezberdina da, Jainkoa onartu bait du erantzun iturri.

Poema bilduma honetan tonuan eta gai aldetik ezberdina eta salbuespen kasik bakarra dugu euskaldun fedegabeari egitako erantzuna edo errierta hau.

10.- Labur-laburrean.

Elorri liburuak "euskaldun fededun" giro aparta islatzen digu; naturaz inguratutako komentuan zoriontsu bizi den prailea, munduaren alde erreguka eta jendeari bake hori eskeiniz. Euskal Herriko nazio arazoa, justizia edo pobreen oihua ez da larria oraindik eliza haretan, Andra Mariaren aurrean belauniko eta Eliza Amaren altzoan bildua. Apaiz zintzo eta fededun aparta ageri zaigu kristau euskaldun hura. Zalantza izpi batzu hasi dira, euskaldun fedegaberen bat, eta hari erantzuteko astia dauka.

Sekularizazioak jotako gizartea, Vaticano II. Kontzilioak beritutako Eliza ez dira oraindik ageri poematan. Fedea naturaltasunez bizi da, euskaltasuna ere bai. Hala ere ibarrean hasi dira urak harrotuten, Eliza hasi da aldatzen.

Liburuaren amaieran, 214-216.eko orrialdeetako "Arima santu bat lez" poemak, hauxe kontatzen digu: eliza berria egiteko torre zaharra bota behar. Eliza berria egiteko ere, gauza asko bota behar, beste batzuk aldatu, oinarrizkoak mantendu behar, sekularizazio eta eliz berrikuntzak onartzeko.

“Ixillik noa neu be, oroiak igurtziz,  
 Bai... etzaitut aaztuko... alako ziñean...  
 Txiki, lirain eta zaar, kanpaez betea.  
 Alantxik diraukezu nire biotzean” (216).

Elizako torre zaharra bota dute, (Arima santu E214.or.) Eliza zaharra bota/jausi dute/da. Aintzinako esker onez gogoan, baina eliza berriari begira... Elorritik Hiru Gizon Bakarkara eman-go dugu pausua..

### **Hiru gizon bakarkako gai erlijioso batzuen azterketa**

Literatur aldetik eginiko azterketek sarri aipatu izan dute liburu bi hauen artean bide bat eman dela naturaren mundutik herri-  
 ra jaitsiz. Fedeari dagokionari begiratzen badiogu, espresakerak guztiz sekulartu direla esan dezakegu, gaiak ere, nahiz eta barne barne fede bizi emankorra ageri. Badira zenbait poema guztiz erlijiosoak, salmuen antzera egindakoak adibidez. Baita txokalinaren inguruko lehen kapituluetan profetengandik jasotako tipologiak. Eta liburu guztian egoera larriaren arren, bizi itxaropen eragile bat da nagusi. Batzutan herriaren alperkeria edo handikien injustizia salatuz. Beste batzutan adorea emanaz...

Aurreko liburuan jorratu gabeko edo oso gutxi landutako gaiak aterako dira bertan, baina danetan gizakiarenganako fedez, Herriarenganako fedez, Jainko fedez aitormen larria eginaz. Bakarka kantetan duten gizon hoiek Jeremias berriaren itxura dute, profeta berrien estiloa.

1.- Mundua ez da Arantzazuko komentu lasai bat. Ez dira ageriko Elorri liburuan hain ugari ziren klaustro ixilak, praile otoizaleak, komentu kabiak... Poeta hiru gizonekin batera herriko plazara jaitsi da, txakolindegira...

Plazan ezagutzen da  
 Bat gizon ote den (72).



Lehen bere lehen meza kantatzen zuenak, orain korupean aurkituko dugu bere anaiei protesta gisa euskera gitxi erabilten delako frantziskotar anaidian (117-139).

Sekularizazioak jota Elizara ez doan euskaldun horrengana hurbilduko da poeta, bere plazan, txakolina hartu bitartean bere mezua aldarrikatzeko, inoiz salatzaile, besteetan adorea emanaz, "garaien ezaugarriak" entzun gurean bere garaiko herriarekin:

Nire herriak bezala  
Nahia badut  
Aterik ez (130).

Ama lurraren aztarnen ondoan, Artasoko arbasoen arrastoen ondoan, Bibliako salmuekin jositako salmu berriak eskeini-ko dizkigu:

Bihotz-bihotzez maite dut lurra (179).

Frantzisko deunaren Kreaturen Kantika gogoratzen digunak, adibidez.

Eta Jaunarekin solasean, Jainko egarriz, otoitz diren poemak eskeiniko dizkigu

Jauna:

Zer gura dozu?  
Zertarako naukazu? (124)

2. Mundua ez da oraingoan komentuko kabitik ikusten dugun errealitate argilun hori, eta munduaren alde otoitz egin behar dugu.

Munduaren argiak eta ilunak, Vaticano II. Kontzilioak esan zuen bezela, gure ardura dira, bertan ikusten dugu Jaunaren eragina eta erronka.

Poeta mundu eta herri horrek jo du, eta urteotako isilaldia bukatuko du:

Entzun nuen eta pentsatu.  
Herriak nindun ikutu.  
Herriak eta egiak  
Guztiok behar bait gaitu (145).

Askatasun egarri den gizaki, herri eta mundua:

Zenbat bider ezinaren  
Kate hain labur honen  
Erruz, kate hain astun  
Honen pixuz, zertxobait  
Gehiago iritxi  
Nahiez urkatuten (121).

Gai honetakoak ditugu alegiak (79 eta beste), adibidez.

Handi eta txikien artean, aberats eta pobreen aldean zatitu-  
ta dagoen herria eta mundua:

Handiaren arrazoiak  
Ehun ta hamar dira  
Ta denak handiak.  
Txikiaren arrazoiak  
Ez dira beriz arrazoi  
Baizik lotsagabekeriak (95).

Azken baten, herritik hartu duena herriari itzuli nahi dio  
poetak:

Nik herriari zor dioadala  
Herritik hartu dudana (73).

Eta herriak bere hitzak hartu eta kanta egin zituen, eta kan-  
taldiz kantaldi Euskal Herrietan zehar zabaldu ziren hitz urri  
haiek:

Hitz urri batzuk  
Dauzkat bakarrik,  
Eta abots kraskatu bat (127).

3. Euskal Herriko gaia sarri agertuko da poema honetan: txakolin herria hain zuzen ere, nahi eta ezinaren herria, izan nahi eta izaten ez dioten uzten herria, herri pobrea, bajua, euskeraz herba egiten duen herria.

Dolmenak ditun menditik:  
Mendien urrun hartatik,  
Basoen ilun luzetik,  
Guganaino etorri da  
Jadanik hibai delarik (167).

Ama lurra, dolmenak, Artasoko toki sakratua... gure herri hau egin duten aztarnak, orain Salmu eginaz (Artasoko zazpi salmuak 169-182).

Sufritu duen herria:

Gerrako garrak ez zuten erre  
Gernika kixkarratuan (74).

Herri alpertzua kultura kontuetan inoiz, eta hori ere salatu behar da:

Euskaldunak dirurik  
Egiten du baina  
Euskerarik ez (89).

Elorrin sarrien agertzen zen hitza "arima" izanik, oraingoan "herria" litzateke gairik aipatuena: naturatik gizartera, komentutik plazara, eta arimatik herrira.

4. Justizia eta pobreak, Elorrin argi ta garbi gutxi ikusten genuen gaia, orain gai ugari eta nagusi egiten zaigu. Azterketalari askok poesia sozialaren eragina aipatzen digute. Apaiz batek, frantziskotar batek, "bere" poesia soziala egiteko eredu argi bat dauka: profeta edo igarleak.

Euskal herriko pobreak, txakolin herriko pobreak, nekazari, arrantzale eta langile,



Herri xehe horrek eutsi diola  
 Saldu gabe  
 Baliorik gabeko herri kontzientzia baliotsuari (36).

Herri xehea, hainbaten, *Israelgo bondarraren* oihartzuna duen herria: herriko agintariak Jainkoa eta herrikotasuna kanpostarrei eta sasijainkoei salduta, Yavek bere ustea dauka herri xehe harengan, herri xehe horretan hasita sortuko da Israel berria, Euskal Herri berria.

#### 4.1. Profetak.

Holako aipamen zuzenak kontuan eukita ere, txakolin upe-laren inguruan kantatzera batu diren hiru gizon horreek ez al dira profeta laiko batzuk Euskal Herriaz berbetan? (Txakolinaren ospakuntza 1 eta 2 eta Hiru Gizon bakarka).

Profeta ez da igarle hutsa. Sarri pentsatu izan da profeta igarle hutsa dala, etorkizuna asmatzen duen gizakia. Euskeraz ere sarri hori itzuli da, Bibliako zentzun osoa mutilatuz.

Profeta, zentzun biblikoan, Jainkoaren izenean herriari hitzegiten dion pertsonaia da, eta era berean, baita ere herriaren izenean Jainkoari berari.

Profetak herria astinduko du, gogor hitzegingo dio salatuz Jainkoaren asmoetatik urrundu bada. Salaketa horretan herriko jauntxoek eta agintariak jasoko dute erasorik bortitzena, haien erruz herri apal eta xehea ere Jainkoaren asmoetatik desbideratu dutelako.

Era berean, profetak leun egingo dio berba herri horri bizkortu eta adoretuz... esperantza emanaz une zailetan eta larrietan, erbestean, etab. Profetak eraiki eta desegin egingo du...Jeremiasen kantikak, adibidez.

Zentzun bibliko honetan, gure hiru gizonak profetaren papela betetzen dute oso osoan: herria adoretuz zein kritikatur..., herri xehea baino gehiago jauntxoei kolpatuz.

Herri xehea, herri galdua, herri soila (36-37) deituko dio poeta profetak, jauntxoek zapaldua eta mexpresatua (38).

Gizarte sekular baten, bere Hitzak ez datoz zuzen zuzenean Jainkoarengandik, Arrese Beitia edota Iparragirre-ren kasuetan bezela (“arbola bedeinkatua”...) baina profetaren estilo eta joera bete betean dute.

#### 4.2. Profeta eta sasiprofetak.

Teologian asko landu den gaia da, profetak agintariei gogor egiten die: erregea, goi apaizak, epaileak etab. Batzutan tenplua bera ere haien hitzek jo egiten dute.

Benetako profeta jatorraren ondoan eta haren kontra, profeta faltsuak daude, zurikeriaz erregearen alde ekiten dutenak eta profeta jatorraren kontra. Profeta horiek, gehienetan errege edo apaizen kontura bizi eta jaten dute, beraz haren borondatearen menpe daude.

Biblian profeta arteko borroka hau nabaria da. Jeremiasek, Amosek... hainbat liskar izan zuten sasiprofeta horien kontra.

Errege profetek heuren lanbidea zaintzen dute erregea defendatuz, eta horretarako injustizia eta bortxakeria eta herriaren zapalkuntza ahaztu behar badute, ahaztu egingo dute.

Sasi profeta hoiei Gandiagak Errege profeta deitzen diote: erregeren menpe bai daude:

Erregeren profetek  
Ez dakite euskal-  
Ardoaren berri,  
Edo, agian, bai.

Erregeren profetek,  
Agian, jakinean,  
Ez dute jaikin nahi  
Txakolinik dugunik (45).

Baita ere 90, 93, 95 orrietako Errege profeten kontrako berbak:

Zeren eta hauek diren Erregeren profeten  
profeziako profeziak  
erreinuko bake justu baterako” 96. or.

Poemako profetak, ostera, salatu egingo du:

Ta, halaxe, behin gehiago arren,  
salatzera noa  
zentralismu-katea  
ezin dugula jasan (119).

Edo Herriko profetaren berbizkunde profezia poema ezine-derragoan...

Ikusten duzu Herriko igerleak dioen alegia, (157).

Eta bukatzeko hona Artasoko 5. Salmu luzearen amaieran, profetak bere sentimendu bizia zabaltzen digu:

Ikutzen gaituen udaberri hontan  
Berritzen ikusten ditut  
Gauza eta gizon  
Eta harriaren eta uraren  
Gaineko Herri honi  
Baderitzaiot jadanik  
Justiziaren erreinu.  
Hau ez da irudipen bat,  
Hau ez da oroitzapen bat,  
Baizik sentimendu bizi bat (177.178).

5. Ama Birjinak ere baditu bere aipamenak Hiru gizon bakarka poema liburuan. Hala ere bere irudia ez da aspaldiko emakume aberats lasaia, Errodrigo artzaiak arantzan aurkitu zuena (148-149). Oraingo kalbarioko Ama dugu, bakardadea-



ren Ama, Nekaldiaren Ama, Jorge Oteizak irudikatu zuena Basilika berriaren atariko frontoi tristean.

Hona Txabi Ikobaltzetaren azalpen esanguratsu bat: "Ezaguna da eta antropologoaren artean onartua, hirurogeigarren hamarkadan Europan izan zen hutsune kulturala. Deskonposizio eta birmoldatze fenomeno hau krisian murgilduriko euskal eremuan ere gertatu zen eta belaunaldi gazteetan areagotu. Euskal kulturarekiko sentiberatasun bereziagatik nabarmentzen den Jorge Oteizak maisuki irudikatu zuen Arantzazuko basilikaren fatxadan.

Zelaigunearen nibel berean jarritako apostoluak jarduera eta bizitza sozial berrian murgilduz doazen belaunaldi berriak dira, frontisaren goialdean kokatutako ama lurra indarberritzeko ahaleginetan bere barruaz hustu egin diren diren bialduak. Seme batzuk bizitza galdu egiten dute ahalegin honetan eta ama lurrak bere magalean hartu eta babestu egiten ditu, eta aldi berean justizia eskatzen dio zeruetako erlijio Aitari" (Mintegi apunteak 2 or.)

Ama Birjinaren irudi fin eta zerutiar hura, Elorriko kantagaia, Hiru gizon bakarka minez eta bakardadean dagoen Ama da, justizia eske bere seme hil dutelako. Bukatu ziren fedearen garai lasaiak, eta Ama ere Elizatera atera da gizartearekiko arduratsu, bere seme-alabak zaindu gurean...

#### 6.- Eliza profetikoa munduarekin bategin dena.

Txakolinaren ospakuntzak, bigarrenak batez ere, liturgia bat dakarkigute gogora. Liturgia hori, oster, ez da Arantzazuko Elizan ospatua, herriko txakolindegian baizik, herriratuz, plaza-ratuz...

Hiru gizonak, deiemailea eta txakolin-maixua presbiterioan daude, altara upela delarik.

Herria, herri soila, herri xehea, herri galdua adi dago, bere tokian,

Orpo herririk gabe  
Ez dago gizonik (34-40)

letania errepikatuz.

Edota beste hau, herri kanta dena:

Matsaren orpotik dator  
Mama gozoa (60-62).

Edota bere mugimenduekin:

Makurtu-urratu-makurtu-zutitu (57-58)

jaikiko den herria bere ardoa, ardo pobrea, txakolina landuz.

Elorriko gregorianozko musika haiek, herri kanta dira oraingo ospakizunean.

#### 7.- Abadetza.

Elorri poetak, errigizonen ertzetik beste kostaldera joan bada: abadetza zubi edo batela delarik (Elorri 112), Hiru gizon bakarkan poetak bere apaizgoa utzi gabe, herriz joan da herriaren mandara profeta bezela. Sakratuak bereiztu zuena, gero sekulartu egiten da ebangelioaren askapen beharrez.

Gogoan ditugu heuren sotana eta habitu itxita, zenbat esames sortu zuten gure apaiz batzuek gure euskal herrietan. Batzuk, habitu gabe ere, heuren apaizgoa mantendu eta era berrietara zabaldu zuten ebangelioaren berri ona, gure profeta haiek bezela. Beste batzuk sotana galduz hasi ziren, gero heuren apaizgoa eta fedea baztertuz.

“Jaungoiko eta gizonen artean zintzilik” (Elorri 113 ) zegoenak, gizonen artera doa Hiru gizon bakarka liburuan, Jaungoikoaren aginduz, bere herriarari zor diolako, gizakiarengan esperantza duelako.

Nire herriak bezala nahia badut... (130)  
Entzun nuen ta pentsatu

Herriak nindun ikutu.  
Herriak eta egiak  
Guztiok behar bait gaitu (145).

8.- Jainko gose agertzen zaigu liburu honetan poeta ere. Herriarenganako ardura eta joan beharrak ez dio bere otoitzalditik eta abadetzatik atera: sekularizazioaren egoera berriak eta Elizaren erreformak, betiko egiak hizkuntza berrietan azaldu ditu.

Jauna, zer gura dozu... (124), Egon gaude (133) otoitz bi-ziak ditugu. Fedecaren gau iluna, zalantzazko unerako Begira gaua... (135) edo Arratsaldea... (137). Herri mitologia eta kristau fedea elkarrizketan ari dira Elgea mendiko... (164) eta Artaso... (165) poematan. Eta ezin ahaztu Artasoko 7 salmuak, bizia, lurra eta biztueraren aitormen, zalantzak arren.

Seigarrenak naturaren salmuen, Frantsizkoren kreaturen kantikaren edota Ernesto Cardenal poeta nikaraguarren oihartzunak dakarzkigu.

Horrela, salmu hoiien fede aitormenaren ondoren, poetak, profetak, apizak bere lur bateoa ospatuko du:

Eta gero  
Neure burua baino  
Gorago jasoz eskua,  
Burutik behera utzi dut  
Sorbaldaz behera jausten,  
Neure lur guztiz behera,  
Lurrezko bataioaren  
Seinaletan (184).

Kosmos eta natura guztiarekin bat, naturaren eta herriaren sakramentu den lur horrekin hain zuzen:

Harriaren arreba  
Lurra hartu dut esku barruan,  
Euskaldunen ama lur,



Uraren kideko lur,  
Suaren sostengu lur  
Zuraren orpoko lurra (183).

#### 9.- Bladi Oterori.

Elorri liburuan poema bat Txillardegiri eskeini zion Gandiagak. Oraingoan Bladi Oterori, eta oso tonu ezberdinean.

“Hitza geratzen zitzaion” Oterori, eta hitza geratzen zaigu euskaldunoi, diotso Gandiagak, mendez mende datorkigun hitza eta herriaren izpiritua (104), zubi izpiritua hain zuzen ere. Batzuk heuren herria saldu dute. Saldu nahi ez dutenei heuren eskubideak errespetatzeko deia egiten du poeta-profetak.

#### 10.- Laburrean.

Hiru gizon bakarka liburuan agertzen den gizartea giro berri baten murgiltzen da. Poeta profeta bilakatu zaigu, eta garaien ezaugarriei so, plazara eta txakolindegira jaitsi da bere mezuarekin, inoiz mingotsa, inoiz esperantzaduna. Euskal Herriko nazio arazoa, justizia eza, pobreen egoera larria da eta poeta-profetak bere hitza kantatuko du. Gizarte sekulartu haretan hizkuntza ezberdina erabiliko du. Andra Maria Nekaldiko eta Bakardadearen Ama da, bere seme eta bere herriarekin batera sufritzen duena. Aintzinako euskalherriko aztarnak jaso ditu, kristau fedearekin bat eginaz. Eliza ez da iadanik gaztelu bat, “kanpaketa denda” baten itxura gehiago du, “gizon egin eta gure artean bere denda jarri zuen” (Jn 1) Jesusen antzera. Haren poesia eta otoitz mistikoek, hala ere, bere jarrera eta jokabidearen iturburu garbia adierazten digute.

Egoera larria da guztiz, eta poetak:

Ibarrera,  
Azkar ibarrera,  
Denak ibarrera:  
Itotzen ari bait da  
Euskaldun arima (101) dei egingo digu.

## **Sekularizazioaren eraginari poetaren erantzuna**

Aurreragoko puntu bietan, argi ikusi dugu sekularizazioaren eragina gure poetaren lanaren bilakaera edo prozesuan.

Sarri poesia sozialaren eragina ikertu izan da bere obran. Hori ukatu gabe, baina interpretazio horren aberasgarri, beste faktore bi aurkitu ditugu:

-kanpotik: euskal gizartean sekularizazioak izan duen eragina, Eliza eta fedea berregokitzera bultzatuz,

-barnetik: Vaticano II. Kontzilioak euskal Elizan izan duen eragina.

Eragin bikoitz horren aurrean, erantzun ezberdinak eman izan dira euskal gizartean eta euskal elizan. Batzuk aintzinako pentsakera eta jokabideetan gogor jarraitu, beste baztuk fedea ukatu eta Elizaz aldenduz, eta baita ere errespeto osoko elkarriketa baten bitartez, molde berriak jorratu dituztenak.

Gandiagaren lan bi hauek konparaturik, hauxe esan dezakegu:

fededunak bere fede sakona alde batera utzi gabe;

apaizak Elizaren jokabide berriak bereak eginaz;

euskaldunak bere herriaren aintzinakotasuna jasoaz eta eupada bat guztioi botaz; gizakiak bere senideekin bategin eta haiengana hurreratuz;

eta praileak bere konpromisua hartu duela pobreekin, pobreen alde, profeta bihurtuz.

### **Sintesia**

Sekularizazioaren eragin eta erronkari elkarrizketaz erantzun dio poetak. Elkarrizketaren horren fruitu den sintesia bere lan baten azken bertsoan aurki dezakegu, Gabon dut anuntzio liburuaren azken gabon-kanta edo poeman.

-frantziskotarren kutsua: "bakea, ongia ta onespena denoi", praileon agurra, hemen hasiera eta errepikapena delarik.

Ezaguna da Frantzisko deunaren eragina gabon giroko hainbat ohituratan (jaiotza adibidez).

-betiko ohizko fedearen osagaiak: Jaunagan poza egunotan, bakea, zintzotasun, xalotasuna.

-gizarte sekulartu honetan hitz berriekin berresanak: pobreen aldeko kezka, justizia beharra...

Baina utz dezaigun poetari hitzegiten, eta bere hitzekin irakur dezagun, edo hobeto kanta dezagun gabon-kanta berritu hau:

Bakea, ongia ta  
 Onespena denoi,  
 Jaunagan pozez pozten  
 Zareten guztioi  
 Eta hurkoen arduraz  
 Bizi zaretenoi,  
     Bakea, ongia ta  
     Onespena denoi.  
 Bakea, ongia ta  
 Onespena denoi,  
 Pobreen aldeko kezkak  
 Bizi zaituztenoi  
 Ta justizia sendo  
 Maite duzuenoi,  
     Bakea, ongia ta  
     Onespena denoi.  
 Bakea, ongia ta  
 Onespena denoi,  
 Barkatzen duzuenoi  
 Ta bakezaleoi  
 Ta zintzo, otzan eta  
 Xalo zaretenoi,  
     Bakea, ongia ta  
     Onespena denoi.

1.985 (GDA 130-131 or.)



## ***Bibliografia***

1.- Bitoriano Gandiagaren lanak:

*Elorri*, Oñate, 1962

*Hiru Giozn bakarka*, Donostia, 1991. Guk bigarren argitarlpen hai erabili dugu, eta liburu honetako oharrak edizio honi dagozkio.

*Uda batez Madrilen*, Oñate, 1977

*Denbora galdu alde*, Donostia, 1985

*Gabon dut anuntzio*, Oñate, 1986

*Ahotsik behartu gabe*, Donostia, 1977

2.- Eta beste:

ARREGI, Jose: Nazareteko Jesus Zer gizaki? Zer Jainko?, Bilbao, 2000

ASKOREN ARTEAN: Bitoriano Gandiaga eta Mendata, Bilbo 2001

ASKOREN ARTEAN: Euskal liteartura urratzen: Literatura III, Bilbao 1986

GARCIA TRUJILLO, Sebas: Mintegirako apunteak

IKOBALTZETA, Txabi: Mintegirako apunteak

ITURBIDE, Amaia: B. Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza. Poesia tradizionalaren bidetik, Donostia, 2000

LAUAXETA: Olerkiak, Donostia, 1985

MARTINEZ, Gaspar: Una perspectiva desde Euskal Herria, Vida Nueva, 13.04.2002,

*Jose Mari Kortazar*

*Mintegi lana*

*Gasteizko Teologia Fakultatea*